

5.ZENBAKIA-2021-UZTAILA

# GUKA

UDA 2021

**UROLA KOSTA,  
GOZATZEKO**





# UDA KO SAIO BEREZIAK

UZTAILETIK AURRERA OSTIRALERO, 22:00 ETAN

ERLO TELEBISTAN ETA MAXIXATZEN, UZTARRIA, BALEIKE, KARKARA,  
ZARAUZKOHITZA ETA UROLAKOSTAKOHITZA WEBGUNEETAN

# HAS GAITEZEN GUKA!



# UDAKO LURRINAK



## Onintza Lete Arrieta

Pertsona bakoitza bakarra dela esan ohi da, eta horri gehituko nioke familia bakoitza ere hala dela; etxe bakoitzean ohitura batzuk sortzen dira, gustu eta mania batzuk, bizitza ikusteko eta bizitzeko forma zehatzak, eta hori oso agerian gelditzen da udan ere, aisialdiaz gozatzeko norberak duen moduan. Ahizpa eta biok, esaterako, inoiz ez gintuzten oporretara eramán gurasoek; ez zuten horretarako grinik sentitzen. Nahiago zuten egunerokotasunarekin jarraitu, nork bere eginkizunetan, eta herriko festak bizi udako une berezi gisa.

Gurasoekin bidaia luzerik egin ez arren, gure haurtzaroko opor egunez oroitzapen izugarri politak ditugu. Amaren base-rrian elkartzen ginen zortzi lehengusu-lehengusina, eta hainbat astez huraxe izaten zen gure bizilekua eta gure abenturen erdigunea. Udak usain berezia hartzen zuen

osaba baratetik etxeraten zenean piper, tomate eta bainekin. Arratsalde trumoitsuek ere halaxe zuten, usain berezia, zaparradaren ondoren lurreko hautsa harrotzen zenean. Kresalaren usaina ere udan hartzen genuen, autobusez Zumaiara joaten ginenean.

Pandemiak pandemia, aurten ere udako usainak hartu ditu bazter guztiak. Zaila da izkin egitea opor garaiko lurrinei: aurten ere iritsi dira ekaitzak, tomateak eta piperrak, eta eguraldiak eta osasunak lagunduz gero, hamaika plan egin ahalko ditugu orain eta hemen, urrutira joan gabe. Bakoitzak bere izaera, gustu eta manien arabera antolatuko ditu jarduerak, eta horretan laguntzeko argitaratu ditugu orriok: autokara-

**Zaila da izkin egitea opor garaiko lurrinei: aurten ere iritsi dira ekaitzak, tomateak eta piperrak**

bana zaleentzat, mendizaleentzat, surflarientzat, artezaleentzat, haur txikiak dituzten gurasoentzat, jatun onentzat nahiz nostalgikoentzat.

Oporretan ezer egin gabe egotea atsegin dutenekin ere gogoratu gara, erdi etzanda eguzki epeletan, lasai ederrean denborapasak egin ahal izateko edo iritzien atalak irakurtzeko.

Eta aktiboagoak direnekin ere bai, udan Urola Kostan egingo diren ekitaldi erakar-garrienetakoen pintzelada batzuk hautatuz agendan.

Udako lurrin hauek geu ere oporrak hartzera garamatza-tenez, urrian argitaratuko dugu hurrengo GUKA aldizkaria. Bitartean, udako GUKA saio berezietz gozatzeko aukera izango dute gure ikus-entzuleek, Erlo telebista jarrita nahiz UKTren taldeko atarietara sartuta: baleike.eus, karkara.eus, maxixatzen.eus, urolakosta.hitza.eus, uztarria.eus eta zarauskohitza.eus. ■

**Argitaratzailea:** Urolako Komunikazio Taldea

**Zuzendaria:** Onintza Lete Arrieta


**Tirada:** 4.700 ale









**Enpresa laguntzailea:**







-  Autobidea
-  Errepideak
-  Errekak
-  Trenbidea
-  Lurrun trenaren ibilbidea
-  Bidegorriaren ibilbidea



Mendiak



Ermitak



Kobazuloa



Hondartzak



Aisirako eremua



Lurrun trenak



Bidegorria



**ASKE BIDAIAZKEKO** LAGUNA  
6-9. orrialdeak



**URRUTIRA** JOAN GABE  
10. orrialdea



**ZESTOATIK AIZARNARA,**  
GALTZADA ARTEAN  
11-13. orrialdeak



**PINTZELADAZ PINTZELADA**  
SORTUTAKO BIDAIA  
22-23. orrialdeak



**OLATU GAINEAN DANTZATZEKO**  
HAMAIKA AUKERA  
24-25. orrialdeak

## ASKE BIDAIATZEKO LAGUNA

**losu Garate azpeitiarrak eta haren bikotekideak iaz erosi zuten beren beharretara egokitutako autokarabana. Asteburu askotan erabiltzen dute egunerokotasunetik aldentzeko urrutira joan gabe, eta udan, berriz, bidaiia luzeak egiten dituzte European zehar.**

Testua: **Mireia Galarza Bastida.**  
Argazkiak: **Alex Berasategi eta losu Garate.**



Matrikulari erreparatzea nahikoa da jabetzeko losu Garateren (Azpeitia, 1982) autokarabanak ez dituela urte asko. Azken hori, baina, ez da azpeitiarrak probatutako gisa horretako lehen ibilgailua. Furgoneta bat erosi zuen lehenik, 2006. urte inguruan, eta bidaiatzeko atondu



**2GURPIL**

Iturrilun plaza, 5 behea eskubia  
ZARAUTZ · 943-83 59 80  
2gurpil@gmail.com · www.2gurpil.com  
f 2gurpil bizikletak



**Euskalduna taberna**

Kale Nagusia 37 · ZARAUTZ  
Tel. 943-13 03 73  
f i



zuen hura, oheak, hozkailua nahiz berogailua jarrita. Bidaiatzeko manera hark eskaintzen zituen onurez ohartuta eta "erosotasuna" bilatzeko asmoz, bigarren eskuko autokarabana bat erostea erabaki zuten Garatek eta bikotekideak hamarkada bat inguru igaro ondoren, eta hura

bi urtez eduki ostean, beraien "beharretara egokitzen" zen autokarabana berria erosteko hautua egin zuten joan den udan.

Autokarabanarekin bidaiatzeko abantailei buruz galdetuta, Garatek "askatasuna" nabarmendu du, "norberak erabakitzen baitu nora



**KALE NAGUSIA, 21  
AZKOITIA  
943-10 52 62**

**42 URTE**

**Tradizioan  
oinarrituriko  
mende erdiko  
esperientzia**

**ETXEZA ETXEA, Z/G  
AZKOITIA  
943-85 20 31**

**60 URTE INGURU**






**Erreportajea bideoz eskainiko du Erlo telebistak udako Guka magazin saio berezietan. Ez galdu!**

eta noiz joan". Inprobisatzeko ere aukera ona ei da autokarabana, leku batera joan eta "gustura" bazaude, arazorik gabe gera zaitezkeelako egun batzuk gehiago, eta alderantziz bada, "lehenago alde egin".

Mota horretako ibilgailu bat erostea, ordea, "ageriko inbertsioa" dela dio Garatek, baina

beraiek ateratzen diote zukua, udako oporraldi luzeez gain, astebukaeretan ere "txoko berriak ezagutzeko ohitura" dutelako. "Aste gogorra eduki baduzu, beti dago aukera ostiralean autokarabana hartu eta oso urrun ez dagoen txokoren bat bisitatzeko, eta guk geuk hori egiteko ohitura dugu, horrelakoetan ateratzen baitzaio benetako errentagarritasuna autokarabanari", iritzi dio.

Udan, berri, Europa aldera jotzen du bikoteak, "hobeto" prestatuta daudelako, bai errepide aldetik, bai autokarabana guneei dagokionez. Bat nabarmentzekotan, Tiroleko (Austria) estatu aipatu du Garatek. Bere hitzetan, iparraldeko herrialdeetan askoz ere usadio gehiago dago autokarabanaz bidaiatzeko, eta horrek ere asko baldintzatzen du guneen zerbitzu maila.

Beste herrialdeetan bai, baina ingurura begiratuta, jendearen beharrak "aski bete gabe" daudela dio Garatek. Bere esanetan, euskaldunek geroz eta ohitura gehiago daukate furgoneta edo autokarabanarekin bidaiatzeko, baina azpiegiturak falta direla nabarmendu du. Garateren hitzetan, "autokarabana eremu gutxi



**ITXAS-LUR  
TABERNA**  
Santuiturri Plaza, 3-4  
ZARAUTZ  
Tel. 943-89 01 38  
[www.itxaslur.eus](http://www.itxaslur.eus)

**ITXAS  
LUR**  
Taberna







daude, askotan ez oso leku aproposetan, eta horrek irisgarritasuna zailtzen du". Hala ere, aldaketa nabaritu dela azpimarratu nahi izan du azpeitiarrak: "Badirudi herrietako udalek hauteman dutela hainbat herritarrek bidaiatzeko beste ohitura batzuk bereganatu dituztela, eta ari dira lekuak prestatzen. Azpeitian, adibidez, Goenako lekua aipatzekoa da; oso ondo dago autokarabanarekin etortzeko".

Dena den, "autokarabana kopuruaren gorakada hori egonkortu" egingo dela irizten dio Garatek. "Joera bat nabaritzen zen lehenetik, eta koronabirusak dena azkartu badu ere, nik uste ez dela izugarrizko aldaketarik etorriko". ■





# Isidro

E R R E T E G I A

Aingeru Kalea, 16,  
AZKOITIA  
943-85 20 03



# URRUTIRA JOAN GABE

**GUKA** magazinean erakutsitako ibilbideak ikusteko, **QR** kodeak sakelako telefonoarekin irakurri eta hasi hurrengo txangoa prestatzen.




## AITTOLA ETA BERE PAISIAK

Azkoitian Debarekin muga-mugan dagoen Madariaga auzora egin zuen aurreneko txangoa Gorka Peñagarikano kazetariak, Joxe Izagirre Aittola Zar jatetxeko nagusia lagun zuela. Itsasotik hamar kilometro eskasera dago Aittola, baina itsas-mailatik 600 metrora.



## ZELATUN ALDEKO PAISIAK

Joxe Ramon Agirrerekin eskualdearen barrena joan ziren, Errezilera. Bailara zoragarrian kokatuta dago Errezil, baina ibilbidean goialdetik ibili ziren eta Aizulegiko meatzeak, Mendibeltz tontorra, Gazumeko tontorra eta Zelango bordak ezagutu zituzten.



## TALAIMENDI ETA BERE MAGALAK

Lorentxo Portularrume zarautzerra bidelagun hartuta, kostaldeko hiru herritan egindako ibilbidea osatu zuten, itsasoa eta mendia batzen diren lurretan: Orion, Aian eta Zarautzen.



## AIZARNAZABALEN MENDI BUELTA

Laugarren atalean, Aizarnazabalen hasi eta amaitu zuten txangoa Jesus Zulaikaren laguntzarekin, bidean hainbat mugarri gainditu eta lau geldialdi eginda: Urdaneta, Txatxarro gurutzea, Indamendi gurutzea eta Zehatz auzoa.



Jatetxe, ostatu edo bestelako negozioren bat duzu, eta **URRUTIRA JOAN GABE** atalean parte hartu nahi duzu? Edo eskualdean egiteko planen bat proposatu nahi duzu? Idatzi **gukazerbitzuak@ukt.eus** helbidera.



# ZESTOATIK AIZARNARA, GALTZADA ARTEAN

'Urrutira joan gabe' atal berezi hau  
Zestoako Udalak babestu du



## ZESTOAKO TURISMO BULEGOA

Portale Kalea, 1  
20740 ZESTOA (Gipuzkoa)  
Telefona: 943-86 88 12  
[www.zestoaturismo.net](http://www.zestoaturismo.net)



## Gorka Peñagarikano Goikoetxea

Aizarnak sortu omen zuen Zestoa, eta, denborekin, Zestoak gaina hartu zion Aizarnari. Aizarnak nekazari herri oparoa izaten jarraitu zuen bitartean, Zestoak burdinaren merkataritzari eutsi zion; eta haren eskutik, Urola ibaia baliatuz, herri bezala puztu zen. Hala sortu ziren lehen hotelak, Arozena eta Artetxe. Handik abiatzen da udako GUKA saioaren atal berezi hau.

Lehen malda hastear denean aurkitzen da parez pare San Joan ermita, XVIII. mendekoa, eta bideari jarraituta, laster batean heldu daiteke Akoa auzora. Edo auzoaren parte batera, ez baita oso auzo txikia. Mendiz eta muinoz inguratua dago, gainera. Baserri bideko errepideari jarraitu ordez, badago ibilbidearen parte handi bat hartzen duen erromatar galtzada historikoa, zuhaitz artetik doana. Galtzada guztian zehar, historikoki, kalbarioa aurki zitekeen; orain, horren aztarna bakarren bat aurki daiteke ibilaldian. Eta oro har, esan daiteke, Zestoatik Aizarnako tarte osoa bereziki erliebe karstikoa dela, haitz eta harri askokoa.

Mendi artean kokatuta dagoen herria da Aizarna, eta han, Askatzuko baserriaren inguruan dagoen garai bateko meategia bisitatu daiteke. Hango deskargak eta minazuloak nahiko eza-gunak izandakoak dira. Eta Aizarna herritik, gorantz begiratu eta bertan ikusten den Ertxiña mendiko tontorra bisitatzeko ere aukera ederra da. Mendizaleen artean oso toki kutuna da, bista ederrak dituelako, eta bereziki, aztarnategi arkeologiko oparoak jasotzen dituelako.

## Motzean

### Lau geldialdi

- 1. Artetxe hotela
- 2. San Joan ermita
- 3. Galtzada
- 4. Ertxiña tontorra

### Nola iritsi

- **Autobusez.** Garraio publikoa erabiltzeko txango aproposa da, Artetxe hoteletik metro gutxitara gelditzen delako Azpeitirako noranzkoko autobus geltokia. Malda behera jarraituta, berehala ikusten da hotela.

Zumaiarantz doan autobus geltokitik pitin bat urrunago gelditzen da, baina handik ere erraza da bidea. Errepidea gurutzatu, eta errepide ondotik maldan behera egin behar da, hotela bistaratu arte. ■

'Urrutira joan gabe' atala bideoz eskainiko du Erlo telebistak udako Guka magazin saio berezietan. Ez galdu!

# HAINBAT ZERBITZU, PANDEMIAK BALDINTZATUTA

**Ekainaren hasieratik irailaren bukaerara uda sasoiko zerbitzu ugari eskaintzen dira Urola Kostako herrietan. Iaz bezalaxe, aurten ere, COVID-19 birusaren hedapena saihesteko hainbat neurri hartuko dituzte hondartzetan eta kanpoko igerilekuetan. Kostako udalerrietan, berriz, udako TAO sistema dago indarrean.**



## HONDARTZAK

- **Getaria.** Hondartzako sorospen zerbitzua irailaren 15era bitartean emango du Gurutze Gorriak, egunero 11:00etatik 19:00etara. Bainu egokituko zerbitzua ere eskainiko dute Malkorbeko hondartzan irailaren 15era bitartean, 11:00etatik 19:00etara artean. Ahal dela zerbitzu hori aurrez telefonoz hartzea gomendatu dute Gurutze Gorrikoek, "jende pilaketarik izan ez dadin". Bainu egokituko txanda hartzeko 617 45 21 53 telefono zenbakira deitu behar da.
- **Orio.** Antillako hondartzaren edukiera NikHondartzak aplikazioaren bidez edota Abaromendiko biribilguneko semaforoan kontsultatzeko aukera egongo da. Antillako hondartzaren bi aldeak izango dira sarrera-irteerak, eta erdigunea hesitu egingo dute. Hondartzaren eskuinaldeko dutxen eta komunen kabinak zabalik daude, eta erabiltzaileek bertan utzi ahal dituzte hondartzarako aulkiak edota surfeko oholak. Txurrukako hondartza itxita egongo da irailaren 15era bitartean, iaz bezala.
- **Zarautz.** Zarauzko hondartzaren edukiera kontrolatu egingo dute, eta horretarako hon-

dartzarako hamar sarrera eta irteera jarri dituzte. Edukiera kopurua marearen arabera aldatzea izango da, eta hori kontsultatzeko aukera dago Zarauzko Udalaren webgunean ([zarautz.eus](http://zarautz.eus)). Bestalde, uda honetan moilan ibiltzeko aukera izango da, eta sorosle bat egongo da bertan.

- **Zumaia.** Itzurungo eta Santiago hondartzaren edukierak bideokameren bidez kontrolatuko dituzte. Beraz, araututa egongo dira hondartzetako sarrerak eta irteerak. *NikHondartzak* aplikazioaren bidez kontsulta daiteke unean-unean hondartza bakoitzeko edukieraren egoera. Marea goian dagoen ordu tartean Itzurun hondartza itxi egingo dute. Santiago hondartzan, berriz, dunetatik pasatzeko bideak itxita egongo dira udan, baita paduraren eta zuloagatarren etxaldearen arteko bidea ere.

Foru Aldundiak kontrolatuko du hondartzaren edukiera bideokamerez, eta *NikHondartzak* aplikazioaren bidez kontsulta daiteke hondartzaren betetze maila.

## P TAO - APARKALEKUAK

- **Getaria.** Irailaren 30era arte dago indarrean uda sasoiko aparkalekuen araudia. Kaiaren inguruko eremu guztian ordainpeko TAO egongo da, eta herriko beste hainbat gunetako aparkalekuak egoiliarrentzako gordeko dituzte.
- **Orio.** Irailaren 12ra bitartean martxan izango dira herriko TAO makinak. Hala, ibilgailuan eranskailua ez daukatenek tiketa hartu beharko dute hondartza inguruan eta futbol zelaiaren ondoan aparkatzeko.
- **Zarautz.** Ekainetik dago martxan TAO sistema berria Zarautzen. Egoiliarren eranskailua dutenek hainbat tokitan aparkatzeko aukera izango dute. Udan ibilgailuak aparkatzeko aukera gehiago izateko, hainbat gun e atondu ditu Zarauzko Udalak: Salberdin, Kortazar eta Eguzki Izarra.
- **Zumaia.** Irailaren 15era arte dago indarrean aparkalekuen udako araudia. Egonaldi ertaineko hiru gun e daude herrian: Axular ibiltokia, itsas kiroldegia eta Sagarbide-GKN ingurua. Gune horietan doan aparkatu ahal izango dute zumaia- rrek lehen sei orduetan. Bestalde, aparkatzeko bi doako eremu daude: Torreaga eta kirol portua.

## I GERILEKU IREKIAK

- **Aia.** Aiako igerilekuak %50eko edukiera baimen- dua du; 382 lagunentzako tokia. Aiako Udalak denboraldiko bonuak nahiz eguneko sarrerak salduko ditu: 0-3 urteko haurrek doan izango dute igerilekurako sarrera. Eguneko sarrera 4-17 urte artekoek 4 euro ordaindu beharko dute eta 18 urtetik gorakoek 5 euro. Denboraldiko bonua, berriz, 4-17 urte artekoek 15 euro ordaindu behar- ko dute eta 18 urtetik gorakoek 30 euro.
- **Azkoitia.** Irailaren 12ra bitartean egongo da irekita Ugarteigarango igerilekua egunero, 10:30etik 14:30era eta 15:30etik 20:00etara. Edukiera %50era murriztuta dute, eta gehienez, 700 lagunek egon ahal izango dute aldi berean instalazioetan. Elkar- gunearen webgunean kontsultatu ahal izango da zer nolako betetze maila duen igerilekuak.
- **Azpeitia.** Kanpoko igerilekua irailaren 12ra bi- tartean irekita izango da egunero, 11:00etatik 20:00etara. Pandemia tarteko, kanpoko igerileku- ra joan ahal izateko, aurrez hitzordua hartu behar da Azpeitiko Udalaren webgunean ([azpeitia.eus](http://azpeitia.eus)). Horrez gain, beharrezkoa da Azpeitiko Udal Kirol Patronatuko bazkidea izatea. ■

Ikusi eskualdeko hontartzak zuzenean, nahiz mareen taulak eta eguraldi iragarpena [baleike.eus](http://baleike.eus) (Zumaia), [karkara.eus](http://karkara.eus) (Orio) eta [zarauzkohitza.eus](http://zarauzkohitza.eus) (Zarautz) webguneetan.

XOXOTE






943- 58 10 07 · [www.xoxotekoaterpea.com](http://www.xoxotekoaterpea.com) · [aterpea@xoxotekoaterpea.com](mailto:aterpea@xoxotekoaterpea.com)

# ZUMAIAN BERTAKOTUTA

XABIER KAREAGA

Bost anai-arrebetatik gazteena naiz, eta ni jaiotzerako Zumaian pasatzen zituen udak nire familiak. Hasieran, alokairuko etxeetara etortzen ziren, eta gerora, pisua erosi zuten eta egonaldiak luzatzen joan ziren. Abuztuan jaiotakoa naiz, eta jaio ahala, Zumaia ekarri ninduten. Beraz, esan dezaket Zumaia Eibar bera baino lehenago ezagutu nuela.

Gogoratzen dudanaren arabera, behin sanjoanak pasatuta etortzen ginen Zumaia; ume txikienekin bertan jartzen zuen kuarter jenerala amak, eta aitak zein lanean ari ziren edo ikasketa beranduago bukatzen zituzten anai-arrebak joan-etorrian ibiltzen ziren abuztuko oporrak ailegatu bitartean. Bereziki gogoratzen ditut uztaileko larunbat eguerdiak; aita bazkalorduan iristen zen, aste guztia lanean pasatu eta gero. Gure aitak margolaritza zuen afizio, eta inguruko bazter guztiak eraman zituen koadroetara. Ikaragarri gozatzen zituen udak; bere afizioan jarduteko ordu pila bat izaten zituen hemen. Neurri handi batean, seguru asko, paisaiak erakarrira aukeratuko zuten Zumaia oporleku gisa bere garaian.

Berezko udako egonaldia Arrate egunera arte luzatzen zen: orduan, eskolak hasten zirenez, eibartar guztiok Eibarrera bueltatzen ginen. Fenomeno migratzaile oso berezi moduan gogoratzen dut ordukoa. Arrateko jaiak ere mundialak ziren, opor amaierako eibartarren topagunea. Hala ere, udazkenean eguraldia lagun genuen heinean, asteburu pasa batzuk ere egiten genituen Zumaian. Kontxako estropadetara joateko ohitura ere bazen. Aste Santu gehienak ere hemen pasatzen ge-

nituen. Gaur egun ere, Zumaia udako topagune izaten jarraitzen du, eta gutxienez birritan elkartzen gara denok mahai baten inguruan, nahiz eta nire familiako kide bakoitzak bere oporrak beste edonon pasatzen dituen.

Txikiak ginenean ez ginen auzotik apenas ateratzen; Larretxotik Itzurunera eta Itzurundik Larretxora; haitzetara olarrutara, surfera, bizikletekin... Hasieran, beste Eibarko ume batzuekin elkartzen ginen gehien bat, *beraneantiak beraniantiekin*, baina adinean aurrera egin ahala, 10-12 urteren bueltan, bertako lagunekin erlazioa sendotzen joan ginen, eta kuadrilla ere osatu genuen.

Eta desberdin asko bizi izan ditugu. Umetan, gurasoen *beraneo* kontzeptua oso barneratuta geneukan; oporretan etorri, eta oporrak amaitutakoan, martxa. Baina bertan egindako harremanak sendotzen joan ziren heinean, gero eta zailago egiten zitzaigun adiskidetasuna egutegiaren menpe egotea, eta tarteka liskarrak ere izaten genituen gurasoekin guk nahi beste ez ginelako etortzen Zumaia. Bizitza Eibarren berrantolatzea tokatzen zen, eta ongi berrantolatu ere; azken finean, gazteak izanik, edonon moldatzen ginen.

Adinean aurrera egin eta autonomia lortzen joan ginenean hasi zen benetako *engantxadia*. 20-30 urte bitartean bolada desberdinak izan baziren ere, urte guztian zehar, asteburuetan, gero eta gehiago etortzen hasi ginen, geure kabuz. Iritsi zen une bat zeinetan ni eta bikotekidea –eibartarra bera ere– Zumaian bizitzeko

apustua planteatzen hasi ginen. Lehenengo semea bidean zen, eta astebururo bueltaka ibiltzea baino, nahiago genuen aste barruan

**Herri honek beti ekarriko dizkigu  
oporraldi eta aisialdirako gogoetak,  
eta hori gauza handia da bizileku  
bat izanda**



Zumaiatik gure lanpostuetarako bidea egitea. Ez zen erraza izan, baina eman genuen pausoa, eta oso pozik gaude.

Gauza xelebrea moduan zera aipatuko nuke: gure gurasoen belaunaldian Eibartik eta beste hainbat herritatik familia ugari udako oporrak pasatzera etortzen baziren ere, haiei ez zitzaien sekula burutik pasatu Zumaian errotzerik edo bertakotzerik. Beste garai batzuk ziren, mugikortasuna ez zen gaur egungoa bezalakoa; beraiek Zumaia asko maite bazuten ere, oporleku gisa ikusten zuten. Kontrara, eibartar horien seme-alaba asko gara herri honekiko maitasuna jaso eta betirako lotura mantentzea erabaki dugunak. Asko dira bertako herritarrekin elkartu eta familia sortu dutenak; kontatzen hasita, dozenaka eta dozenaka dira gaur egun eibartar horien seme-alabak Zumaian.

Oso gustura gaude Zumaian, herri honek beti ekarriko dizkigu oporraldiko eta aisialdiko oroitzapenak, eta hori gauza handia da bizileku bat izanda; bizitza estilo propioa dauka Zumaia. Itsasoa ikaragarri gustatzen

zaigu, eta batetik bestera lasai paseatzea ere bai.

Agian, Eibartik faltan gehien sumatzen dudana gauza hango mendiak dira. Ez dut esango politagoak direnik, baina desberdinak dira, eta bide eta tontor kutun asko dauzkagu han ere. San Joan jaiek ere oso une hunkigarriak ekartzen dizkidate burura; familiartekoak eta herriko ohiturei lotutakoak batez ere, baina aitortu beharra daukat munduko festarik gogokenak Zumaiaiko santelmoak izan ditudala betidanik. Zeinen gogorra zen San Telmo bezperan Eibarrera bueltatu behar izatea beti...

Lagunen aldetik ere, argi dago erosoena norberaren jaioterrian geratzea dela, baina egia esateko, zorte handia izan dugu, eta beti sentitu gara ongi etorriak. Lagun handiak dauzkagu hemen ere.

Bi seme dauzkagu, etxeko zumaiarrak beraiek dira, eta oso zoriontsuak dira hemen. Hala ere, eibarzale amorratuak dira, eta Ipuruara bueltatzeko irrikitan daude, benetako *football*-a ikusteko, Bigarren Mailan bada ere. Gora Eibar, eta gora Telmo Deun! ■



Xabier Kareaga, txikitan, Itzurun hondartzan, bere anai-arreba nagusiagoekin. UTZITAKOIA

# DONE LAURENDIREN MALKOZ BETETAKO ZERUA

**Pertseidek uztailaren 16tik abuztuaren 24ra izaten dute aktibitate gehien, eta aurten, bereziki abuztuaren 12tik 13rako gauean. Done Laurendiren malko izenez ere ezagunak dira.**

---

**Argazkia:** Jean-Francois Graffand

**Testua:** Kristina Fernandez

---

Oporrak dira, gau giroa dago, eta oskarbi. Pertseidak ikusteko egun aproposa da. Pertseidak izar-euriak dira, 109P/Swift-Tuttle kometak utzitako hauts-partikulak, hain zuzen. Pertseidak deitzen dira Perseus konstelazioaren parean ikusten direlako, Kasiopea konstelazioaren alboan. Euskal Herrian, berriz, Done Laurendiren –San Lorentzo– malkoak izenez ere ezagunak dira.

Fenomeno astronomiko hori uztailaren 16tik abuztuaren 24ra izaten da, eta, aurten, “abuztuaren 12tik 13rako gauean izango du aktibitate gehiena”, aurreratu dute Zarauzko Arkamurka natur elkarteko astronomia saileko kideek. Pertseidak ikusteko, orokorrean, toki ilun bat aukeratzea da onena, argi-kutsadurarik gabekoa. “Erraza da pertseidak ikustea: gora, zerura begiratu, eta, hori bai, pazientzia izan”, azaldu dute. Gure eskualdean badira hainbat gune egoki horretarako: Aittola Azkoitian, Goena Azpeitian, Aizarna auzoa Zestoan, Santa Ageda gaina Beizaman, Laurgain merenderoa Aian, Torreioia eta kanpin ingurua Zarautzen, nahiz Askizu auzoa Getarian. Aukeratu gertukoena edo gustukoena, emaitza bera lortuko baita batean nahiz bestean: ikuskizun txundigarria.

Behin lekua hautatuta, zer eraman pentsatu behar da, baina nahikoak dira erosoago egoten laguntzen duten beroki eta tapaki bana. “Etzan, eta konpainia onean bada, hobe!”, gomen datu dute Arkamurkakoek.

Ikuskizuna betirako gogoan geldituko da, baina argazkiak ateraz gero, une oro pertseidez gozatzeko parada izango da. Argazkiak egiteko, reflex kamera digital bat eta tripodea behar dira. Kamera konfiguratzeko, berriz, argibide zehatzak ditu eskuragarri Somycek elkarteak (Kometa eta Meteoroen Behaketaren Espainiako Elkarte) bere webgunean ([www.somyce.org](http://www.somyce.org)). ■





## UROLA KOSTAKO SEI HAUR PARKE BEREZIENAK

**Haur txikiak eta ez hain txikiak dituztenek udan ere pasa beharko dituztenez ordu batzuk haur parkeetan, eskualdeko gune berezienak proposatzen dira orriotan.**

Testua: **Onintza Lete Arrieta**



### Tirolinan ibiltzeko

Orioko parke berezienetakoa futbol zelaiaren eta erriorearen artean dagoena da. Hartxintxorretan pozik ibiltzen dira mugimendua gustuko duten ume eta ez hain umeak: tirolina dauka, baita al-tuera handian dagoen txirrista ere. Soketatik eskalatuta bakarrik iritsi daiteke bertara. Belardia eta egurrezko mahaia dituzte inguruan, eta erri ondoko paseoari jarraituz, hondartzaraino iritsi daiteke. Azpeitian, Goenan ere jarri dute tirolina gunea, baita Zarautzen, Vista Alegren ere.



### Ur txorro artean

Kostaldetik barrualderantz eginda, Azpeitian bada jolastuz naturan murgiltzeko aukera paregabea ematen duen toki bat: Izarraizko Atea, Azpeitiko Ikastola Ikasberri eta Esklabak komenturen tartean. Uda sasoirako ezin aproposagoa da, ur txorrotak eta lakua dituelako. Haurrak plisti-plasta ibiltzen dira lurretik ateratzen diren txorrotetan, nahiz lakuaren bueltan, jolasean, zokormiran edo esplorazio lanetan. Komun publikoak badi-tu, baita mahaia ere, inguruetan.



### Natura betean

Eskualdearen mugetan, bada altuera handian dagoen parke bat: Zumaia eta Deba arteko Elorrixa auzoko merenderokoa. Parkea ez da berria, betiko elementuak ditu, baina sekulako paisaiaz goza daiteke bertatik, inguruko mendi, herri eta auzoak ikus daitezkeelako, eta naturaz eta lasaitasunaz blaitzeko leku egokia da. Egun pasa ederra egiteko aukera ematen du, mahai asko eta komunak ere badituelako. Aiako Pagoeta parkean ere antzeko haur parkea dago, hura ere paraje berezian eta egun pasa egiteko behar diren elementu guztiez hornitua.

### Barkua nagusi

Eskualdean badira itsasoari keinu egiten dieten haur parkeak. Orioko hondartzakoak, Zarauzko Salbidekoak eta Getariakoak, esaterako, barku bana dute. Azken herri horretakoa da, ordea, hiruretan ikusgarriena. Haur parkearen elementu nagusia da, eta primerakoa umeek beren irudimena lantzeko, ontziaren txoko anitzak aztertzen dituzten bitartean.



### Adin tarte guztietarako

Zarautzek hainbat haur parke ditu, baina Salbiden dagoenak badu berezitasun bat: konpletoa izatea. Batetik, estalia da, eta beraz, urteko egun guztietan erabil daiteke. Bestetik, parkeak adin tarte zabaleko haurrentzako jolasak ditu. Gainera, umeentzako bi frontoi txiki, futbol eta saskibalo kantxa, eta ping-pong mahaia ditu. Komunak ere baditu, baita taberna eta kafetegiak ere inguruetan.

### Irudimena eta artea

Azkoitira bertaratuta dago atal honetako azken proposamena. Ez da haur parke bat berez, baina haurrek erabiltzen dute nagusiki, eta haien mugimendua eta irudimena lantzeko egokia izateaz gain, artearen munduan murgil egiteko aukera ere ematen du. Oteitzaren frontoietan pilotan, ezkutaketan, korrika nahiz patinetan ibil daiteke, ohiko parkeetatik aldentuta. Estalpeak baditu, baita eserita egoteko tokiak ere. ■



# PINTZELADAZ PINTZELADA SORTUTAKO BIDAIA

**Ekain kobako labar-artetik hasi eta Gorka Larrañaga eta Udane Juaristi artista azkoitiarrek egindako muraletan amaitu. Bi espresioen artean 14.000 urteko aldea dago, baina bada elkar lotzen dituen hari fin bat: artea. Bidaia bikoitza da, beraz: batetik, historikoa eta, bestetik, fisikoa. Zestoa hasi eta Azkoitian amaitu, artearen historiaren ibilgailura igota.**

Testua: **Kristina Fernandez**

## **Zestoa. Lehen gizakiak eta margolanak**

Gizakiek orain dela 14.000 urte egin zituzten lehen marrazkiak Ekaingo koban. Zaldiak, oreinak, bisonteak, hartzak... Egunerokoan ikusten zituzten animaliak margotzen zituzten hormetan.

Ekain da Euskal Herriko labar-pintura garrantzitsuenak dituen kobazuloa. Bertan margotuta dagoen zaldien panela, adibidez, Europako historiaurrean aurki daitekeen errealistena da. 2008an Unescoren Munduko Ondare Batzordeak Gizateriaren Ondare izendatu zuen. Gaur egun, koba bera ezin da bisitatu, baina Ekainberri erreplikan ikus daitezke marrazkiak.

“Inolako zalantzarik gabe, Ekaingo leizea da Kantauri eremuko multzorik garrantzitsueneta-

ko bat. Horren arrazoiak hainbat dira: erabilitako teknikak, irudikatutako gaiak, irudikapen-  
netarako baliatutako estiloa, eta kronologia. Ekaingo leizean baliatutako teknikak askotarikoak dira, Goi Paleolitikoaren amaiera aldeko gizartearen artearen isla: inguramendu-marrazki soilak edota hiru teknika motaren konbinazioak –marrazkia, grabatua eta pintura–. Ekaingo leizeko artistek euskarri mota desberdinetara egokitu zuten teknika, baita leizeko gune batera eta bestera ere, ziurrenik, arte horrek betetzen zuen funtzioa oinarri hartuta”. Hala dauka idatzita Euskal Herriko Unibertsitateko Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia saileko Blanca Ochoak Aranzadi elkarteak Ekain kobaren 50. urteurrenaren harira argitaratutako liburuan.

Lehen gizakien lehen marrazkiak dira.



### Azpeitia. Errenazimentuko ezkutuko altxorra

Zestoatik atera, eta Azpeitirako bidea hartu behar da artearen historian aurrera egiteko. Askok, aurrera egin ere; gaurko honetan, XVI. mendera arte. Azpeitiko Sebastian Donearen parrokiaren barruan kokatzen da Bakardadearen Kapera, eta pertsona gutxi ezagutzen duen altxorra da. Peruko konkistan Pizarro konkistatzailearen laguntzaile izan zen Nicolas Saez Elola, eta azken horrek, hiltzerakoan, –XVI. mende erdialdean–, Perun egindako dirutzarekin Bakardadearen Kapera eraikitzeko agindua utzi zuen.

Hiru diziplina artistiko batzen ditu kaperak –arkitektura, eskultura eta pintura–, eta aipatzeko moduko hainbat puntu ditu: batetik, Miguel Angel Errenazimentuko artista italiarraren *Il Sogno* lanaren kopia du. “Udalak garai hartan bogan zegoen tendentzia hautatu zuen enkargatutako lana egiteko; Errenazimentua. Beste



kaperetan begiratuz gero, gotikoa erabiltzen zen, baina Azpeitiko agintariek zerbait moderno nahi zuten, eta Erroma hartu zuten oinarri. Influentzia hori bobedan ikus daiteke: kasetoiak ditu eta hortik argia sartzen da, Erromako Panteoian bezala”, agertu du Jon Ander Arzelus Loiolako Turismo Bulegoko informatzaile eta gida turistikoa.

Azpeitiko kaperan badaude alderdi profanoa duten margoak, eta Elolak Ameriketara izandako abenturak kontatzen ditu. “Peruko hiria den Cajamarca agertzen da, bertan eman zen inken eta gaztelarren arteko azken borroka, eta han harrapatu zuten Atahualpa enperadorea. Gauzarik kuriosoena, agian, honakoa da: margolariak Cajamarcako irudian Sevillako dorreak sartu zituen, Giralda, adibidez”, azaldu du Arzelusek.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan dagoen Errenazimentuko horma-pintura bakarrenetakoa da, eta bisitatu beharreko altxorra da, beraz, Bakardadearen Kapera.




### Azkoitia. Urteurrena modernitatean

Mendeetako saltoa egin berriz ere, eta lau kilometrora, Azkoitian, bi mural ikusgarri goza daiteke. 2024an 700 urte beteko ditu herriak, eta urteurren ospakizunetan murgildu dira dagoeneko. Horren harira, Udane Juaristi eta Gorka Larrañaga artista azkoitiarrek mural bana margotu dute Altzibarko biribilgunearen albo banatan dauden bi etxebizitza blokeetan.

Juaristik eta Larrañagak Azkoitiko elementuak edo sinboloak azpimarratu dituzte beren muraletan. Biak Azkoitiko historiari lotuak daude; Juaristik emakume abarketariak omendu ditu, baina egungo emakumeei ere keinu egin nahi izan die. Larrañagak narrazio historiko bat islatzen duen irudia margotu du, oso

azkoitiarrak diren kodeak edo sinboloak erabiliz. Elementu guztiak bihotzaren figurak biltzen ditu, eta hala, bihotzaren irudia bihurtu da Larrañagaren obraren ikur edo marka.

Juaristiren esanetan, “ez dago aldaketa handirik guk egiten dugunaren eta orain dela 14.000 urteko margoen artean; bai haiek, bai guk, eskura ditugun materialekin ikusten edo bizitzen duguna marrazten dugu. Lehen gizakiek natura eta animaliak zituzten egunerokoan, eta hori irudikatzen zuten. Nik hiriak, pertsonak... ditut inguruan, eta horiek margotzen ditut”. ■



# OLATU GAINEAN DANTZATZEKO HAMAIIKA AUKERA

Argazkia: **Arnaitz Rubio Aprea**

**Surfean aritzeko aukera ezin hobeak ere eskaintzen ditu eskualde honen kostaldeak. Horregatik, lehen urratsak ematen ibili nahiz aditua izan, guztiek aurkituko dituzte berentzat egokiak diren olatuak. Hemen zortzi proposamen.**

## Itzurun

**Non:** Zumaian  
**Olatu motak:** gailur anitzekoa  
**Hondoa:** harea  
**Marea egokiena:** itsasgora  
**Haizea:** hegoaldekoa  
**Beharrezko maila:** hasiberria/ertaina

## Orrua

**Non:** Zumaia eta Getaria artean  
**Olatu motak:** eskuinekoa  
**Hondoa:** harea  
**Marea egokiena:** ertaina  
**Haizea:** hegoaldekoa  
**Beharrezko maila:** aditua

## Izustarri

**Non:** Getarian  
**Olatu motak:** eskuinekoa  
**Hondoa:** harkaitza  
**Marea egokiena:** ertaina-itsasgora  
**Haizea:** hegoaldekoa  
**Beharrezko maila:** aditua

## Aizpurupe

**Non:** Getarian  
**Olatu motak:** ezkerrekoa  
**Hondoa:** harkaitza  
**Marea egokiena:** itsasbehera  
**Haizea:** hegoaldekoa  
**Beharrezko maila:** aditua





## Gaztetape

**Non:** Getarian  
**Olatu motak:** gailur anitzekoa  
**Hondoa:** harea eta harkaitza  
**Marea egokiena:** guztiak  
**Haizea:** hegoaldekoa/ekialdekoa  
**Beharrezko maila:** hasiberria/ertaina

## Ubiri

**Non:** Getaria eta Zarautz artean  
**Olatu motak:** ezkerrekoa  
**Hondoa:** harkaitza  
**Marea egokiena:** ertaina-itsasbehera  
**Haizea:** guztiak  
**Beharrezko maila:** ertaina

## Zarautz

**Non:** Zarautz  
**Olatu motak:** gailur anitzekoa  
**Hondoa:** harea  
**Marea egokiena:** guztiak  
**Haizea:** hegoaldekoa  
**Beharrezko maila:** hasiberria/ertaina

## Antilla

**Non:** Orio  
**Olatu motak:** gailur anitzekoa  
**Hondoa:** harea  
**Marea egokiena:** guztiak  
**Haizea:** hegoaldekoa  
**Beharrezko maila:** hasiberria/ertaina ■

## UROLA KOSTA DASTATZEKO ERE BADA

**Edozein tabernatan, edozein jatetxetan, esperientzia gastronomiko ahaztezina izan dezake herritarrek eskualde honetan. Kalitatezko barazkiak, haragiak eta arrainak eskaintzen dira; asko, bertako eta tokiko produktu propioak dira.**

Testua: **Kristina Fernandez**

Bost zentzumenekin goza daiteke Urola Kosta. Herrien, eta orokorrean, eskualdearen bizia senti daiteke: ezkutuko txokoak nahiz ezagunak baina ederrak diren bistak ikusiz; balkoi, leiho eta lorategiak apaintzen dituzten loreen lurrinak usainduz eta herritarren barreak entzunez; edota eraikin historikoen hormek ezkututzen dituzten istorioak ukituz.

Dastatu ere, dasta daiteke Urola Kosta. Izan ere, ondo eta goxo jateko aukera ugari da bertan. Urola Kostak duen eskaintza gastronomikoa amaigabea eta hobeezina da. Metro koadroko Michelin izar

kopuru handiena duen munduko herrialdeetako batean bizi gara, eta esan daiteke, beraz, hemen gastronomia artea dela.

Arteaz jakin beharrik ez dago, ordea, ondo jateko. Edozein tabernatan, edozein jatetxetan, esperientzia gastronomiko ahaztezina bizi daiteke. Kalitatezko barazkiak, haragiak eta arrainak eskaintzen dira, eta asko bertako eta tokiko produktu propioak dira, gainera. Orioko **bisigua**, Zumaiako **olagarroa**, Getariako **txakolina**, Azpeitiko Loiolako **pipermorroa**, Aiako **gazta**, Errezilgo **sagarra** edota Zarauzko **tomatea** dira adibide garbienak. Baina entzutea baino hobeezinez bizi daiteke, bisitatu eskualdeko herriak eta dastatu presarik gabe. On egin! ■





# abaraxka

## AZKOITIA HOSTEL

*Abaraxka Aterpetxea Euskal Herriaren bihotzean dagoen Bikefriendly alojamendu bat da, Donostiatik ordu-erdi pasatxora, naturan kokatua eta Loiolako Santutegitik oso gertu. Atsedean hartzeko edota talde ekimen baterako ideala.*

### ZERGATIK AUKERATU ABARAXKA?

- Lo lasai eta goxo egiteaz gain, gure jatetxeaz gozatuko duzulako.
- Terrazetatik ikusmira zoragarria dugulako inguruko mendietara.
- Euskal Herriaren bihotz euskaldun eta berdean gaudelako.
- Bikefriendly Kalitate Ziurtagiria dugulako, bizikletazaleentzat zerbitzu eskusiboekin.
- Inaziotar Bidearen hasieran gaudelako.
- Taldeentzat zerbitzu eta eskaintza bereziak ditugulako.
- Zure ekimenak antolatzeko areto mundiala dugulako.

**Guztira 50 ohe ditugu, Aterpetxean eta Etxean banatuta.**



### GURE JATETXEA ETA TABERNA

**Ordutegia:**

**Ostirala:**

16:00etatik aurrera

**Larunbata-Igandea:**

11:00etatik aurrera

**Uztailean eta abuztuan egunero irekiko da.**



### ABARAXKA ETXE TURISTIKOA

- Gune independente bat da.
- Hiru logela eta bi bainugela oso ditu.
- Terraza pribatua, sekulako ikusmirarekin.
- Sukaldea eta egongela.

### ABARAXKA AZKOITIA HOSTEL

Altamira 5. Azkoitia  
679 46 44 73

info@abaraxka.eus  
www.abaraxka.eus

**Jarraitu gaitzazu Facebooken eta Instagramen**

## HITZ GURUTZATUAK

Hizki beltzez eta laukitxo ilunduetan, **Urola Kostako herriak**

### EZKER-ESKUIN

1. **Gure eskualdeko herria, pilotari familia ospetsuaren sorterrria.** Ezeztatzeko erabiltzen dugun hitza. 2. Lau zatitan bereizi. 3. **Gure eskualdeko herria, Kontxako bandera ugari erakutsi ditzakeena.** Bokal errepikatua. Memoria unitate. 4. Jainko egiptoarra. Azkeneko eta lehenengo letrak. Zer pertsona? Bokala. 5. Ospal! Kontsonante errepikatua. Arkuz jaurtitzeko arma. 6. Hitzarmen. Eguzkia. Bokala. 7. **Gure eskualdeko herria, Loiolako Santutegia hartzen duena.** Bokala. 8. Kontsonantea. Urrea balio du. Ez eme. Burdinola. 9. Ohikoak ez direnak. Fosforoa balio du. 10. **Gure eskualdeko herria, sagar mota bati izena ematen diona. Gure eskualdeko herria, azken urteetan zaraustar askoren bizileku bihurtu dena.** 11. Ukuilua, korta. Suitzako ibaia. Alkoholen bukaera.

### GOITIK BEHERA

1. Lantzen den lur zati mugatu. Joan den urtean. Euskal Herria, labur-labur adierazita. 2. **Gure eskualdeko herria, guztietan jendetsuena.** Laborarien lanabes. 3. Laborategietan erabiltzen duten karraskari, akuri. Buztinez eta kare haltzez osaturiko harri. 4. ... gain, batez ere, bereziki. Nire-nirea. 5. Bat eta bostehun, zenbaki erromatarren arabera. Zilarra balio du. Bokal mehea. Lehenengo eta azkeneko letrak. 6. Gizon izena. **Gure eskualdeko herria, txakolin ekoizle handia.** 7. Nonbait. Gorputz ariketa berezkoa duen jarduna. 8. Beharrezkoak ditu letra hauek gure ergatibo singularrak. Eguneroko jakia. Bokala. Kontsonantea. 9. Lur ilunaren kolorekoa. Bizkaiko ibaia, Urdaibai aldean itsasoratzen dena. 10. Juntagailua. Kontsonantea. Aluminioa balio du. Jupiterren satelitea. 11. **Gure eskualdeko herria, Urola Ibaiaren bokalea hartzen duena.** Xume, umil.

.....



Mailaz maila hizki bat aldatuta, 8 urratsetan iritsiko zara **AZPEIT**itik **AZKOIT**ira.

- Gure eskualdeko herria, Urola Erdian
- Ezpataz borrokatzen den pertsona
- Hedabide batean lan egiten duen pertsona, berriemaile
- Fruitutzat ezkurak ematen dituzten zuhaitzak
- Erbinude zuri
- Guraize handiak, aizurrak
- lbigailu bat mugiarazteko behar den indarra
- Oinek lurtean uzten dituzten aztarnak edo seinaleak
- Gure eskualdeko herria, Urola Erdian

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
1									■		
2											
3					■			■			
4			■			■				■	
5	■			■			■				
6					■					■	
7									■		■
8		■			■						
9	■									■	
10									■		
11					■				■		

1	A	Z	P	E	I	T	I	A
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9	A	Z	K	O	I	T	I	A

## HITZ GEZIDUNAK

	Mañdrea, mihisea	▼	Harkaitza, haitza	▼	Kuartela	▼	Arnas ezak hila	▼	Hanka
	◆ Golan		Jardun		Jainko egiptoarra		Ez du ikusten		
	▶		▶		▼		▼		
	Aztarna	▶							
	Emakume izena								
Tifoi, zikloia	▼	Uroia Kostako herria	▶	▼		Hitzez adierazi	▶		
◆ Behean		Opil meheak				Emakume izena			
▶		▼			Garesti, kario	▶			Kontsonantea
					Landare mota				Musika nota
Edo	▶			Abelen anaia hura	▶	▼			Begira
Erregal beltza				Bizkor, zalu					Azkeneko letra
▶			▼			Nazional-sozialista	▶		
						Txakur			
Duela 24 ordukoa	▶							Kasik	
Zintzoa									
▶			Handi	▶				▼	
			Kontsonantea						
Kapitalaren zati bakoitza	▶		▼			Bokal errepikatua	▶		

◆ Gure lurraldeko mendilerro eta ibai nagusiak

### SUDOKU

	2		4	7	3			
			2		3	5		
		8		9				
	7	3	6					
6								4
					1	6	2	
			2		7			
		9	7		4			
		2	5		8			1

### GOITIBEHERA

1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

Goitik behera eta behetik gora, letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak

1. Populazioari dagokionez, gure eskualdeko herri txikiena da.
2. Mehatxua.
3. Errezilgo auzoa.
4. Elizkizun mota.
5. Gabezia.
6. Ere ez.
7. Zigorkatzeko tresna.
8. Gure eskualdeko herria, Euskal Herriko balnuetxe zaharrena hartzen duena.
9. Artean ez den zerbaite egitea edo gauzatzea.

**AZKOITIA****UZTAILAK 7,  
ASTEAZKENA****Hika bertso saio  
komentatua.**

Bertsolariak: Eli Pagola eta Andoni Egaña. Gai jartzailea: Imanol Artola. Bertso saioa hitanoz egin ondoren, mahai-ingurua.

Moderatzailea: Eneritz Artetxe. Gonbidatua: Xabier Eizagirre.


*Elkarguneko Herriko Plaza aretoan, 19:00etan.*

**AZPEITIA****UZTAILAK 24,  
LARUNBATA****Sanagustinen 10.**

**urteurrena.** Hitzartzeak, herriko taldeen emanaldiak eta ikus-entzunezkoa. Besteak beste, Jo ta kie taldearen kontzertua.

**GETARIA****UZTAILAK 24,  
LARUNBATA****Afrikaren kontzertua.**

Herriko plazan izango da hitzordua, 22:00etan. Udako egitarau zabal baten barruko emanaldia. Informazio guztia: [urolakosta.hitza.eus](http://urolakosta.hitza.eus) atarian.

**ORIO****UZTAILAREN 16TIK  
AURRERA**

**Gure Zirkua.** Uda osoan zehar Mendibeltz futbol zelaiaren ondoko belardian egongo da karpa, eta emanaldiak eskainiko dituzte ia egunero.

**ZARAUZ****EKAINAREN 29TIK ABUZ-  
TUAREN 6RA****Kalerki Zarauzko kaleko  
antzerki topaketa eta  
Antzerkia Familian.**

Ekainaren 9tik uztailaren 4ra sei emanaldi eskainiko dituzte Kalerki topaketaren barruan, guztiak Munoa plazan. Uztailaren 8tik abuztuaren 26ra, berriz, Antzerkia Familian egitasmoak zazpi emankizun eskainiko ditu, guztiak Villa Manuela frontoian.

**ZUMAIA****UZTAILAREN 10ETIK  
IRAILAREN 25ERA****Udako kontzertuak.**

Ondorengo sei kontzertu hauek izango dira udan zehar Zumaian: Chill Mafia (uztailak 10), Unidad Alavesa (uztailak 23), Ezpalak (abuztuak 8), Maren (irailak 4), eta Neomak (irailak 25). Sarrerak kontzertu bakoitzaren aurreko asteburuan jarriko dira salgai, Turismo Bulegoan.

UZTAILAREN 2TIK IRAILAREN 10ERA

2021

GUKA

ARGAZKI LEHIAKETA

B K erlo ✨ KH LL ZH



Parte hartzeko, bidali zure datuak eta argazkia(k):

1. GUKA argazki lehiaketaren webguneko txokora datuak eta argazkia(k) **zuzenean igota**.
2. Posta elektronikoz '**lehiaketak@ukt.eus**' helbidera idatzita.
3. Whatsapp bidez, **688 84 63 51** zenbakira idatzita.

## SARIAK

1. EPAIMAHAIAREN SARIA: XOXOTEKO ATERPETXEAN LAU LAGUNENTZAKO EGONALDIA (GAU BAT) MANTENU-ERDIAN (AFARIA ETA GOSARIA).
2. IKUSLEEN SARIA: TALAI BERRI TXAKOLINDEGIAN BI LAGUNENTZAKO UPATEGIRA BISITA, HAMAIKETAKO ETA PARE BAT BOTILA
3. BOTOA EMATEN DUTEN ERABILTZAILEEN ARTEAN ZOZKETA: BI LAGUNENTZAT PADDLE SURF IBILBIDEA ORIA IBAIAN

*Ezagutu eskualdea barru-barrutik  
Asko dago ikusteko!*

**HERRIKO ALDE ZAHARRA**  
Monumentu Multzoz izendatua



**OTEIZA FRONTOIAK**  
Artea eta pilota, espazio bakarrean



**UROLAKO BIDE BERDEA**  
Urolako trenbide zaharraren ibilbidea



**IZARRAITZ**  
Kontserbazio bereziko eremua



**BERTAKOA DASTATU**  
gastronomia



**AZKOITIA**  
Udala